



Ingelesa bai, baina noiz eta nola?

Tira ikaragarria du ingelesak eta ikastetxeetara arrapaladan sartu da. Haurrak lau urterekin hasten dira ingelesa ikasten. Europako ia hezkuntza sistema guztietan da ohikoa atzerriko hizkuntza irakastea, baina ez da hain ohikoa hemen bezain goiz hastea. Adituek diote ingeles goiztiarraren abantailak frogatzeko askoz gehiago ikertu behar dela, ez baitago errentagarria denaren froga zientifikorik.

ONINTZA IRURETA

IKERKETA GUTXI eta galdera asko. Ume txikiek atzerriko hizkuntzak errazago ikasten al dituzte? Txikiak direla atzerriko hizkuntza ikasten hasteak arazo kognitibo edo linguistikorik eragin al dezake haurrengan, era berean bestelako hizkuntzak ikasten ari baldin badira (euskara eta gaztelania)? Bestelako metodorik ba al dago atzerriko hizkuntzak hobeto ikasteko?

Itziar Elorza Ikastolen Konfederazioko Hizkuntz arduraduna da. Ikastoletan ingelesarekin nolako esperientzia izan duten galdetu diogu. Hona erantzuna: “Hala galdetzen digute, ‘ingelesarekin zer egiten duzue?’. Galdera ez da hori, galdera da zer egiten duzue ingelesarekin, gaztelaniarekin, euskararekin, frantsesarekin...?”

Ikastoletako haurren %50-60k euskara dute lehen hizkuntza eta ia beste guztiek gaztelania. Denak ari dira D eremuan, murgiltze edo indartze sisteman. Hauxe Ikastolen Elkartek hartu zuen bidea: ingelesa irakasten hasiko ziren lau urterekin eta gaztelania zortzirekin. Ez zen izan hori erabaki nagusia, hizkuntzak lantzeko proiektu bateratua baizik. Alegia, “konturatu ginen hizkuntzak ezin direla paraleloan landu, hizkuntza bakoitza bere bidetik, baizik eta ikuspegi bateratua behar dela. Ikaslea bakarra da eta hizkuntza gaitasunak ere neurri handi batean bakarrak dira. Hizkuntzak ezin dira kaxa itxietan landu, gauza asko daude hizkuntza guztietarako baliagarriak”. Adibideak jarri ditu hobeto ulertzeko. Esate baterako, aditza zer den behin esplikatzeko zaie ikasleei, berdin da euskaraz, gaztelaniaz ala ingelesez, baina hiru hizkuntze-

tan ez. Kontua da kontzeptua ikastea, gutxienekoa da zein hizkuntzatan. Beste adibidea litzateke ipuinarena. Haurrak ingelesez ikas dezake ipuina nola egituratzen den, gero euskaraz eta gaztelaniaz hitzak ikasi beharko ditu eta lehen ikasitako egituraren ipuina kontatu. Hizkuntzen proiektu bateratu horretan hiru-kotea –euskara-gaztelania-ingelesa– lantzen dute eta laugarren hizkuntza, frantsesa, orain-txe hasi dira molde horretara ekartzen. Etorkinen hizkuntzei ez diete oraindik heldu.

Zergatik hain goiz ingelesa?

Ikasleak hamabi urterekin hasten ziren ingelesa ikasten Ikastolen Elkartek lau urterekin hasia erabaki zuten, 1991-1992 ikasturtean. Espainiako legeak 1993an atzerriko hizkuntza Lehen Hezkuntzako 3. mailan (zortzi urte) hasia ezarri zuen. Zergatik lau urterekin? Bi arrazoi behintzat eman ditu Itziar Elorzak. Batetik, haurrek adin horretan hizkuntzak jasotzeko dohain berezia dutela. Bestetik, Ikastolen Elkartek garbi dauka euskara biziberritzeko

ardatz nagusietakoa dela eskola eta beraz, ele-niztasunaren planteamenduan beti hartu behar dela oinarri euskararen nagusitasuna. Euskara zilborra bada, nola indartu ingelesa? “Esate baterako, ezin dizkiogu ingelesari ez dakit zenbat ordu eskaini Bigarren Hezkuntzan. Horrela egingo bagenu emaitza oso onak izango genituzke, baina euskararen nagusitasuna kolokan jarriko genuke. Ingelesari etekin gehiago ateratzeko daukagun apustua da lehenago hasia eta bidea poliki-poliki egitea”.

“Hala galdetzen digute,
‘ingelesarekin zer egiten duzue?’

Galdera ez da hori, galdera da
zer egiten duzue ingelesarekin,
gaztelaniarekin, euskararekin,

frantsesarekin...?”

ITZIAR ELORZA, IKASTOLEN KONFEDERAZIOA

Kontuz ingeles goiztiarrekin

Nekane Goikoetxea Andoaingo (Gipuzkoa) Udaleko euskara teknikaria da. Duela urtebete bukatu du “Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAE-ko hezkuntza eleanitzean” izeneko doktorego tesia.

Zalantzak ditu zenbateraino den ingeles goiztiarra egokiena: “Hamaika faktore daude ikasketan eragin dezaketenak eta tokian-tokian desberdinak dira gainera. Faktore horiek ez dira ikertzen ingelesa aplikatzerakoan, eta hala ere, eredu goiztiar partziala (ordu gutxi irakasten dira) ezartzen da modu masiboan”. Faktore horietako batzuk hauek dira: ikastetxearen ingurune soziolinguistikoa, ikasleek jarraitzen duten elebiduntze programa (murgiltze eredu edota berezko hizkuntza minorizatua iraunarazteko eredu), aurreko bi hizkuntzen jabekuntza maila, irakasteko erabilitako metodologia, eta abar.

Goikoetxeak ikuspegi kualitatiboa erabili du lanean eta bere tesian erabilitako laginarekin lortutako emaitzek berretsi egiten dituzte eleaniztasunaz, EAEn zein EAEz kanpo, ingeles goiztiarraz beste lanek lortutako emaitzak; hots, hirugarren hizkuntza (atzerrikoa) ikasten beranduago

hasitako ikasleek emaitza hobeak lortzen dituztela oro har, garapen kognitibo handiagoa eta ikaste estrategia garatuagoak baitituzte. Honetaz arduratu diren ikerketa gehienek ikuspegi linguistikoa soila izan ohi dute. Goikoetxearen lanean gaitasun komunikatiboaren kontzeptua landu da; horixe da bere ekarpen nagusia. Honela, ikasleen gaitasun linguistikoa, diskurtso-gaitasuna, ekintza-gaitasuna, gaitasun estrategikoa eta gaitasun soziolinguistikoa aztertu ditu. Ingeles goiztiar partzialaren abantailak zalantzan jartzen dira gaitasun komunikatiboaren osagai guztietan.

Iritziak iritzi, nondik jo beharko genukeen galdetu diogu Goikoetxeari eta hauxe esan digu: “Premiazkoagoa da hiru hizkuntzen curriculumak bateratzea, hizkuntza guztien plangintza bateratua osatzea, eta ez da egoskortu behar eskolan ingelesa goiz sartzearekin. Testuinguru batzuetan goiztiartasuna egokia izan liteke baina ziurrenik ingeles goiztiar partziala ez da egokiena guztientzat. Eredu ezberdinak landuko dituzten esperientzia pilotuak abiarazi beharko lirarteke. Zentzu horretan hizkuntzak irakatsi eta ikasteko EAEko marko berria tresna interesgarria izan liteke”.

Ingelesak kalte egiten al dio euskarari?

Ikasle batzuentzat euskara bigarren hizkuntza da eta ingelesa hirugarrena. Askok du kezka ea haurrak euskararekin moldatu ezinik ibiliko diren hirugarren hizkuntza gehitu zaielako. Ikastolen Elkartek ere zalantzak zituen. Euskararen dudak eta ingelesaren garapena kontrolatu asmoz ebaluazio esperimentala jarri zuen abian EHUKo hainbat adituren laguntzaz. 1991-1992 ikasturtean lau urteko ikasleekin hasi zuen ebaluaketa eta 2003an, ikasle horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu zutenean, bukatu. Bi talde banatu zituzten, batean lau urterekin hasi eta hamasei urtera arte ingelesa ikasiko zuten hamalau ikastola bildu zituzten eta bestean, ingelesa zortzi urterekin eta testuliburu arruntekin ikasiko zuten ikastolak. Urtero ikasle lagina hartu eta ingeleseko azterketak egin zizkieten. Horrekin batera, prozesuan zehar hiru aldiz egin zitzaizkien euskarako, gaztelaniako eta adimen orokorreko azterketak. Ebaluazioaren azken fasea, Gizarte ikasgaia ingelesez ikasi zuten hamalau eta hamasei urte arteko gazteekin egin zuten, arloaren ezagutza neurtu nahian.

Ebaluaketan emaitzak zehatz aztertzea komeni bada ere, hiru ondorio orokor aipatu daitezke. Batetik, ingelesa ikasten lau urterekin hasiagatik euskarari ez dio kalterik egin; bestetik, ingelesean zortzi urterekin hasi direnek baino maila hobea eman dute; eta azkenik, Gizarte arloa ingelesez ikasi arren arloaren

ezagutza bermatu egin da. Itziar Elorzak ondorio orokorra azpimarratu du: “Gauzak ez dira zuri edo beltz, kontua da gauzak nola egi-ten diren. Aspaldi ari gara lelo berarekin: ‘Eleaniztasun goiztiarri bai, baina ez edonola’. Inoiz ez dugu esango lau urterekin hastea oso ona denik, zera esaten dugu: ‘Lau urterekin hastea egokia da gure egoeran eta guk jarritako baldintzetan’. Guretzako sistema egokia da, orokortzeko... Auskalo!”.

Ikastolen Elkartek bazuen euskararen kezkaz gain beste bat: lau urterekin atzerri hizkuntza irakasten hasi bai, baina nola? Bazuten esperientzia elebitasunean baina ez eleaniztasunean. Hasierako pausoak emateko Josep Maria Artigal katalanarengana jo zuten, hura Haur Hezkuntzan atzerri hizkuntzan baita aditua. Ondoren, bertako esperientziak baliatuz eta Europar proiektuen laguntzaz, bide hori garatzeari ekin zioten Bigarren Hezkuntza bukaerarako.

Eleanitz proiektua 1991-1992 urteetan jarri zen abian zortzi ikastolekin. Saio esperimentala 2003an bukatu zen, ikasleek DBH amaitu zutenean. Gaur egun, 75 ikastola –Hegoaldeko ikastola gehientsuenak– daude Eleanitz proiektuan, 25.000 ikasle. Urteetako esperientziaren ondorioz, hauxe Konfederazioaren hausnarketa: “Zein da biderik egokiena euskara lehen hizkuntza nagusia izanik, gaztelania euskara bezain ondo menderatzeko, atzerriko lehen hizkuntzan oinarritzko komunikazioa lortzeko eta atzerriko bigarren hizkuntzaren

“Ingelesak arrakasta izan dezan sei urte bitartean euskara eta gaztelania ondo ikasten dituztela bermatu behar da. Haur Hezkuntza erabakiorra da”

ANA EIZAGIRRE, EHIGE



hastapenak egiteko? Alferrrik saiatuko gara guztientzat balioko duen bide ‘ona’ren bila. Ez dago Erromara joateko bide bakarra”.

Gurasoek ingelesa dakiten haurrak nahi dituzte

Ana Eizagirre Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko koordinatzailea da. Berari galdetu diogu ea zer iritzi duten EAEko eskola publikoetan ikasleak dituzten gurasoek. Haiek ikusi zuten nola hizkuntzak pilatu zitzaizkien seme-alabei: euskara, gaztelania, ingelesa eta baita laugarrena ere batzuetan. Hasierako kezka omen zen haurrak hainbeste hizkuntza ikasteko gai izango al ziren, ez ote zen gehiegitxo. Eizagirren ustez, kezka hori uxatu dute gurasoek eta ulertu dute hizkuntza bat baino gehiago ikastea ona dela. Orain gurasoek galdera hau egiten omen dute: “Ondo ikasiko al dituzte hizkuntzak? Etxean nola lagundu dezakegu?”.

Eizagirren arabera, gurasoek ikasi dute euskarak hizkuntzen ikasketa horretan bere lekua duela, baina zalantzarik gabe, guraso guztiek haurrek ingelesa ondo ikastea nahi dute. Ingelesko *First* –Britainia Handiko Cambridge Unibertsitatearena– azterketa guraso askok ezagutzen dute, alegia, ingelesa ikasteko mailaketa eginda dago,

Lasarte-Oriako Landaberri ikastetxeko haurrak hilabeteak ingelesez ikasteko gogoz.

gurasoek badakite zein maila duten seme-alabek ingelesean eta hor jartzen dute arreta. Euskara menperatzeari buruz berriz, bestelako ikusmoldea dute gurasoek, Eizagirren iritziz: “Uste dute dakitenarekin nahikoa dutela, euskaraz irakasten duten eskolara eramaten dituztelako euskara jakingo dutela kalkulatzen dute”.

Ama hizkuntza menderatu, bestela jai dago

Eizagirrek ez du uste ingeles goiztiarrak euskarari eta gaztelaniari kalte egin dienik, baina behin eta berriz azpimarratu du gakoa ama hizkuntzak menperatzea dela: “Hizkuntza bat baino gehiago menperatzen dituzten haurrengan ikusten da txikitatik hasi direla hizkuntzak ikasten, eta familia hizkuntzak (bi izan daitezke) menperatzen dituztela. Lehenengoak ondo ikasten badituzte hirugarrena, laugarrena eta bosgarrena ere ikasiko dituzte. Aldiz, lehenengo hizkuntza ondo menperatzen ez bada bigarrena ez da ondo ikasten eta hirugarrenera guztiz izorratuta iristen da haurra”. Eremu erdaldunetan eta egoera sozioekonomiko kaskarretan bizi diren haurrak gogoan dituela esan du hori. Ama hizkuntza ere (gaztelania) ez omen dute menperatzen, batzuk D erudian

Babeslea: Oiarzungo Udala

OIARTZUN, UDALERRI EUSKALDUNA
Osasungintza, Lantegiak, Epaitegiak, Merkatal eta Finantza Zerbitzuak ere euskaldunduz. Euskaraz bizi nahi dugulako hamaika lan elkarrekin egiteko dugu.

Oiarzungo Udala
www.oiarztzun.org

● Eleaniztasuna

ikasten dute, eta ingelesarekin ere hasten dira; hizkuntza bakarrekin ere nahiko lan dute.

Ingelesak arrakasta izan dezan sei urte bitartean euskara eta gaztelania ondo ikasten dituztela bermatu behar dela dio Eizagirik. Haur Hezkuntza erabakiorra da eta kexu da, EAEn A ereduko eskoletan baino ez baitira falta irakasle euskaldunak, eta aurten bertan konpondu zitekeena gerorako utzi duela administrazioak salatu du Eizagirik.

Hamar urteko esperientzia eskola publikoan

Rosa Aliaga Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Atzerriko Hezkuntzen arduraduna da. Aurrez irakasle aritu zen 20 urtez, bai Haur Hezkuntzan, baita Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ere. Eskola publikoetan ingelesak izan duen sarrera gertu-gertutik ezagutu du. Hark kontatu dizkigu ingeles goiztiarraren lehen pausoak. 1996an Hezkuntza Sailak lau urteko proiektua jarri nahi izan zuen abian. Esperientzia hogeni ikastetxerekin egin nahi zuten eta hiru taldetako bat aukeratu behar zen: lau urterekin ingelesa irakasten hasiko zirena; zortzi urterekin bost orduz –ordura arte hiru ordu izaten ziren– eta tartean ikasgai bat ingelesez emango zuena; eta hirugarrena aurrekoaren gauza bera baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Hiru taldeak jorratu eta lau urtera emaitzak ikusteko aukerarik ez zuten izan; ingelesak erakutsi zuen nolako erakarpena zuen guraso zein irakasleentzat: deialdira 130 ikastetxe



Haurtzat ahalik eta erakargarrien egiten dituzte ingeleseko eskolak.

MADDI SOROA

aurkeztu ziren. 120 ikastetxek lehenengo taldean egon nahi zuten, bigarreneko hamar ikastetxe aurkeztu ziren eta hirugarreneko 20ren bat. Proiektua 20 ikastetxerekin egingo zenez, 13 hasi ziren lehen taldean, hiru bigarrenean eta lau hirugarrenean. Giza baliabideak eta baliabide materialak jarri zituen administrazioak eta hiru urtez lanean aritu ziren. 1999an, egoera eraman zena zen, ehundik gora ikastetxe proiektutik kanpo eta inolako laguntza eta kontrolik gabe ingeles goiztiarra ezartzen ari zirelako, 13 ikastetxe pribilegiatu horiekiko desabantailan. Hezkuntza Sailak ikastetxe guztiei laguntzea erabaki zuen. 1999an sei laguneko aholkulari taldea osatu zuten –17 izatera heldu zirenen gero– eta urtez urte eskola maila bakoitzerako ingelesa irakasteko materiala prestatzen hasi ziren. Oraintxe ari dira 16 urtekoentzako azken materialak prestatzen. Zikloa osatu da beraz.

Ingeles goiztiarrekin hasi zirenetik hamar urte pasa eta gero, lehen ebaluaketaren emaitzak jaso zain daude, lau urte eta 6. maila arteko egin baitiete azterketa. Bestelako ebaluaketa egin zuten 2004. urtean. Ondoren, Esperientzia Eleaniztasuna izeneko deialdia –arloak atzerriko

“British eredu” Nafarroan

Nafarroa ezin da Euskal Autonomia Erkidegoko panoramarekin alderatu, ez hizkuntza ereduaren sistemari ezta ingelesaren ezarretari dagokionez ere. Hiru zonaldeetan banatuta dago, hizkuntza ereduak ez dira EAeko berak eta ingelesaren kasuan, hezkuntza publikoan boladan dagoena “British eredu” da.

Eredu hori sustatu baino lehen Nafarroako Gobernuak, UPN-CDNrenak alegia, bestelako ahaleginak egin zituen eta I (gaztelania eta ingelesa) eta J (gaztelania, ingelesa eta euskara) izeneko bi hizkuntza eredu ezartzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Horretarako legea aldatu behar zen, eta bestalde, hainbat kritika jaso zuen euskara bazterrean uzteko modua besterik ez zelako. Beraz, Britainiar Kontseiluarekin hitzarmena sinatu eta “British eredu” zabaltzen hasi dira eskoletan. Gobernuak saldu duenez, elebiko hezkuntza bermatuko du, berez G eredu moldatua den horretan, gaztelania eta ingelesa ikasiko dira, murgiltze sistema modukoaren bidez. Elebiko sistema horretan euskarak ez du tokirik eta ingelesak emango dituen emaitzak ikusteko daude.

“Euskarari kalte? Ingelesa ordu
erdiko hiru saiotan egiten zen-eta
astean? Eta gainera ingelesa
ikasten haur denak batera,
maila berean, hasten ziren,
lau urterekin. Euskararekin
ez da hori gertatzen”

ROSA ALIAGA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA

hizkuntzan irakasteko— egin zuen Hezkuntza Sailak eta proiektuan parte hartu zuten zenbait ikastetxeri egin zaio ebaluaketa. Emaitzak ikusita Aliagak argi dauka: “Ingelesa ikasten dute eta ez da aitzakia euskararentzat. Sailak garbi dauka Esperientzia Eleaniztuna ezin dela erabili euskara baztertzeko. Horregatik, elebitasuna hartzen du abiapuntu. Esperientzia honetan A ereduko ikastetxe publikoren batek parte hartu nahi badu, ikasleek euskara maila ona dutela erakutsi behar dute”.

Hasierako eztabaidak eta kritikak

Ingeles goiztiarrarekin hasi zirenean euskararekiko zegoen beldurra gogoan du Rosa Aliagak: “Euskarari kalte? Ingelesa ordu erdiko hiru saiotan egiten zen-eta astean! Eta gainera ingelesa ikasten haur denak batera, maila berean, hasten ziren, lau urterekin. Euskararekin ez da hori gertatzen, D ereduan diren haur guztiek ez dute maila bera euskaraz eta gaztelaniaz”.

Europa iparraldeko hainbat herrialdetan ingelesa eskolan ikasten 12-13 urterekin hasten dira. Aliagari behin baino gehiagotan esan diote hori eta xehetasunak ez direla ahaztu behar dio: Suedian, Finlandian... hedabide asko ingelesez dituzte —filmak edo telebistako marrazki bizidunak jatorrizko bertsoian ikusten dituzte, esate baterako—, guraso askok dakite ingelesa, asko bidaiatzen dute...

Ingeles goiztiarra beste hizkuntzentzako traba ez ezik abantaila izan daitekeela uste du Aliagak, kontua ez baita ingelesa bera ikastea, hizkuntzak ikasteko estrategiak garatzea baizik, eta estrategia horiek beste hizkuntzetan aplikatu daitezke. Motibazioa aipatu du esate baterako; haurrei erakargarri egitea ingelesa, pizgarriak eskaintzea ingelesera hurbiltzeko, gustuko egitea.

Baliabiderik gabe ez dago emaitza onik

Aliagak orain arteko bidearen balorazio baiko-rra egin du, baina etorkizuna ez du hain polita sumatzen: “Hezkuntza Sailak bukatutzat eman du 1996an hasitako bidea. Baliabideak lehenera itzuliko dira eta orain ere laguntza asko behar da; ingeles irakasleentzako Irale moduko bat adibidez, lau urteko haurrekin hasi eta hamabi urte arteko irakasle berak eskolak ematea saihestea... Orain txanpa galtzen badugu hemendik hamar urtera ingurukoak baino motelago ibiliko gara ingelesean”.

Ume txikiak atzerriko hizkuntzak errazago ikasten al dituzte? Txikiak direla atzerriko hizkuntza ikasten hasteak arazo kognitibo edo linguistikorik eragin al dezake haurrengan, era berean bestelako hizkuntzak ikasten ari baldin badira (euskara eta gaztelania)? Hasierako galdera berberak dira, adituek nolana ere erantzun nahi ez dituztenak. Besterik ezean egindakotik atera behar ondorioak. ■

GABON OPARIRIK EDERRENA

Bergara aldeko hiztegia
Juan Martin Elexpuru



ANTOSIN, antosiña. (ai. i.). Urta edateko erabiltzen den eskuleka bakarreko metalezko ontzi bat. Aceite, bacina, nete. *Kalenk etorri na antosiñara ura eran naban danga-dingu. in. tolet (Uh.).*

ANTS, antsa. (di. i.). Hala, kintsa, usain txarra. • *Heek etria: haurra egundako antsa sentido just!* Eturki...
*... eta dan. haurra justen ezan antsa just etuan. Gut...
... familia batzuetan hitz amaria bada ere. Usain tx...
... esaneta.*

STTU, (d. Eih.) af. "Padrino, descomponer...
... haur leu antsiña joko arratia." (Eitba Eih.) S...

Prezioa

30 €

EZAUGARRIAK

- 12.000 sarrera
- 800 argazkia, mapa eta koadro
- 768 orrialde

Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak
liburu bilduma



BILDUMAKO LIBURUAK

- Linua, ehuna eta artilea
- Txondorsk, karobisk eta elurzulok
- Zura: arotzak eta ebregileak
- Burdina: emementariak eta perratzakak

Prezioa

Liburu bat: 9 €

Bilduma: 30 €

Bergara Aldeko Euskararen Erakundea

SALMENTA LEKUAK: Liburu-dendetan • Bergarako Kultura Etxean (Errotalde Jauregia) 943 77 91 59

2007ko abenduaren 16a